

Txirula magikoak harrapatuta

Hamelingo txirulariaren istorioa ekarri zuen Teatro Paraisok Kultur Etxera

Txirula magikoak harrapatuta egon ziren ordu betean larunbat arratsaldean Manuel Lekuona Kultur Etxera joan ziren haur eta helduak. "Txirulari magikoa" eskaini zuen Teatro Paraiso antzerki taldeak aretoan. Oso ezaguna da sagu asko, gehiegi, zituen hirian gertatutako istorioa. *Hamelingo Txirularia* ipuinaren bertsio libre eta bikaina egin du Teatro Paraiso Gasteizko konpainiak eta ikusleek ederki pasa zuten emanaldian zehar. Musikak garrantzia berezia du lan honetan eta aspaldiko doinu magikoak jo zituzten. Ez zuten istorio edo ipuin soil bat kontatu, errima, musika eta antzezlearen arteko joko bat bihurtu zuten emanaldia, eta azken finean arazo baten aurrean agintariaren zintzotasunak duen garrantzia isladatu zien ikusle txiki eta handiei. •



Hamelin-go pertsona eta xaguak izan ziren larunbateko emanaldian protagonista.



XIX. mendeko
Leitzarnera
joango da
Oñatz taldea
azaroak 6an / 4

Blues eta funk doinuak ostiralean kultur etxean

Blues, reage eta funk musika doinuak nahastu zituen besteak beste Donostiako Wha Wha Buga taldeak ostiralean Kultur Etxeko kafetegian eskaini zuen kontzertu berezian. Bost neska gaztek osatzen dute taldea, saxo, tekla, batera, gitarra eta baxu jolea emakumezkoak dira eta gizonezko perkusiojolearen laguntzarekin emanaldi bikaina osatu zuten eta bertan elkartu zirenek gozatu zuten. Normalean baino ikusle gehiago izan ziren gainera. •



Wha Wha Buga taldeko neskek kontzertu bikaina eskaini zuten ostiralean Kultur Etxeko kafetegian.

GIZARTEA/2

Odol emaileek insignia eta diplomak jaso zituzten Adunan

GIZARTEA/3

Gaur egungo gaiak aztergai XVIII. Osasun Jardunaldietan

GIZARTEA/6

Chi-kung saioak eskainiko dira aste honetan Dasa zentroan



Bideo Lagunak

Urriaren 25etik 30a arte

BEZa oparitzen dugu (%18ko beharpena)

Telebistak, bideo-kamerak edo argazki-kamerak erosterakoan

TIEN21eko PLAN REMOVE
AZKENEKO EGUNAK
aprobetxatu !

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Odol emaileei omenaldia Adunan

Lasarte-Oriako emaileek insignia eta diplomak jaso zituzten atzo



Omendu zituzten Lasarte-Oriako odol emaileak atzo Adunako Jasokundearen elizan.

Jakina da odola ordezkaezina dela, ezin dela laborategi batean sortu, beraz lortzeko modu bakarra emailen bidez da.

Hortan dabil urte 1982an sortu zenetik Odol Emaileen elkarte. Guztira 72 delegazio eta 400 boluntario baino gehiago ditu. Horieta azken astelehenean Lasarte-Oriako anbulatorioan egoten dira, odola ematera hurbiltzen diren herritar guztiei laguntzeko.

Atzo goizean, Adunako Jasokundearen elizan meza entzun eta gero, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarte Oriako Beheko ordezkaritzak intsigniak eta diplomak banatu zituen odol emailen artean.

Insignia eta diplomen banaketan, Billabona, Aduna eta Zizurkilgo alkatesek parte hartu zuten. Ekitaldia hasi aurretik aurkezpena egin zuten Gipuzkoako Odol Emaileen elkarte lehendakaria den Sabin Urzelai-k. Eskerrak eman zien guztiei. Izan ere,

urtero antolatzen duten ekitaldi honen helburua, urtez urte odola ematen jardun direnei omenaldi xumea egitea da. Atzoko ekitaldian Lasarte-Oriako odol emaileekin batera, Aia, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Hernani, Ibarra, Irura, Orio, Tolosa, Urnieta eta Usurbilgoek hartu zuten parte.

Ekitaldiaren ondoren, Aburua sagardotegian bildu ziren bazkari eder bat egiteko asmoz eta ekitaldiari amaiera ezinhobea emateko. •

OMENALDIA JASO ZUTEN ODOL EMAILEAK

50 donazio

1. Arteaga Galarraga, Francisco
2. Barquero Bonilla, Jose Luis
3. Guijarro Martinez, Iñaki
4. Mateos Muñoz, Jose Manuel
5. Palomo Diez, Aurelio
6. Rebe Busto, Jose Antonio
7. San Sebastian Pené Jose Ramon
8. Segura Barasoain, Jesus Mari
9. Val Saez, Maurino
10. Zelarain Arandia, Ion Mikel

40 donazio

1. Azpeitia Zabaleta, Ana M^a
2. De Ara Sanz, M^a Nieves
3. Ikutza Arruti, Gotzone
4. Iradi Camino, Miren
5. Larrañaga Echeverria, Lourdes
6. Ortiz de Guzman Iriarte, Arantza
7. Redondo Ingelmo, Yolanda

25 donazio

1. Arizmendi Gutierrez, Mercedes
2. Azkonobieta Berastegi, M. Pilar
3. Dominguez Manibardo, J. Felipe
4. Elorza Esnaola, Iker
5. Etxaniz Begiristain, Milagros
6. Gomez Mendo, Oscar
7. Lopez Mendo, Jose Manuel
8. Maiza Botanz, Juan Esteban
9. Odriozola Gonzalez, Bernaitz
10. Ormazabal Ansa, M^a Karmen
11. Sanchez Arroyo, M Pilar
12. Sanchez Sanchez, Margarita
13. Urrezti Amonarraz, Aitziber
14. Vicente Corral, Hermelinda

Arrieskaletakoak oinez joan ziren Leitzara

Arrieskaleta elkarte 30 lagun inguru oinez joan ziren atzo Berastegitik Leitzara eta gero han bazkaldu zuten elkarte beste kide batzuekin batera Gurazmendi elkarte. 9etan abiatu ziren autobusez Tolosara, handik beste batean Berastegira, hemendik oinez Leitzara joateko.

Ia lau ordu behar izan zituzten Berastegitik Leitzara bidea egiteko. Hasieran eguraldi oso ona izan bazuten ere, helmuga iristear zirela euria hasi zuen eta bustita iritsi ziren Gurazmendi elkartera uste baino beranduago, arratsaldeko 3etan. Bazkaria prest zuten bertan, oinez iritsi ziren 27 lagunek. Horieta 7 haurrak ziren eta ederki pas zuten guztiek bazkal ostein..•



Argazkiak Berastegitik Leitzara oinez joan zen Arrieskaleta elkarte koadrilla abiatu aurretik.

Gaur egungo gaiak aztergai Osasun Jardunaldietan

Gaurtik ostegunera, teknologia berrien adikzioa, alzheimerra, tabakoaren adikzioa eta transplanteak izango dira hizpide

Lasarte-Oriako Udalak osasun arloan, hezkuntza eta informazioa eskaini nahi die herritarrei. Horregatik, XVIII. Osasun Jardunaldiak antolatu ditu gaurtik ostegunera, arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi artoan.

Marisa Zubiri, Osasun arloko batzordeburuaren ondo ezagatik, Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballosek egin zuen ostiralean jardunaldien aurkezpena.

“Aurten, egungo gizartean sortu diren patologia berriak jorratu nahi izan ditugu,” azaldu zuen alkateak.

Gaur egungo gaiak

Gauzak honela, gaur, teknologia berrien eta sareen adikzioari buruz arituko da Enrique Echeburua Psikologia klinikoko katedraduna.

“Gazteengan eragin handia dute gaur egun teknologia berriak. Ez dira etxetik ateratzen eta, ondorioz, ez dira gizarteratzen,” adierazi zuen alkateak. Horregatik, gurasoei hitzaldira joatea gomendatzen die, “teknologiaren erabilera adikzio noiz den eta hori nola ekidin jakin dezaten.”

Alzheimerra izango da gai nagusia asteartean, Gurutz Linazasoro Neurologoak eta Pablo Martinez Lage Ikertzailearen eskutik. “Alzheimerra



Alkateak astean zehar egingo diren Osasun jardunaldien berri eman zuen ostiralean.

duen gaixoei kosta egiten zaie hau dutela onartzea. Gaixoak gero eta gehiago dira eta gazteagoak,” aipatu zuen Zaballosek. Horregatik, “gaixotasun hau gizarteratu eta desmitifikatzeko ahaleginak egin behar dira,” azpimarratu zuen.

Honetaz gain, “urtarrilean tabakoaren lege berria sartzen da eta Euskadin zorrotzagoa izango da, horregatik Javier Laparra neumologoa gonbidatu dugu, asteazkenean eta Tabakoarenganako adikzioa gaintzeko hainbat jarabide eskainiko dizkie herritarrei,” azaldu zuen.

Jardunaldiei amaiera emateko, Luis Balenciaga ATCORE

Euskadiko bihotz eta biriketako transplantatuen elkarteko bokala, Garikoitz Lasa Kardiologiako espezialista eta Miren Telleria hemodinamikako medikuak transplanteei buruz hitz egingo dute.

“Euskadi transplante gehien egiten duen erkidegoa da. Jendeak horri buruz gehiago jakin eta organoen emaria sustatzeko hitzaldi hau eskainiko dute,” aipatu zuen.

“Aurreko edizioetan, herritarren harrera ona izaten da eta aurten ere horrela izatea espero dugu,” amaitu prentsaurrekoa zuen alkateak. •

ABESBATZA

Liepaités haur abesbatza kultur etxean

Asteazkenean, hilaren 27an, Liepaités haur abesbatza lituaniarra entzuteko aukera egongo da kultur etxeko auditorioan, arratsaldeko 20:00etan.

42.Tolosako abesbatzen lehiaketan parte hartuko dute urriaren 31ean, baina lasarteoiratarrek aurretik entzuteko aukera izango dugu.

Liepaités abesbatza lituaniarra 1994an sortu zen artista talde independente baten eskutik, hala nola, Petras Vailionis eta Lina Dumbliauskaite irakasleak. Orduan, National Trade Union Culture Housen menpe zegoen emakumeen estudioko abesbatza musika eskola bilakatu zen. Bi irakasleek, Petras Vailionis eta Lina Dumbliauskaitek 1997 urtera arte zuzendu zuten abesbatza eta harez geroztik, Jolita Vaitkeviciene da zuzendaria.

Liepaités abesbatzak nazio eta nazioarteko jaialdi eta lehiaketan parte hartzeaz gain, hainbat sari lortu ditu.

Abesbatza hau 14 eta 17 urte bitarteko 40 neskez osatuta dago. Hauek guztiak zazpi urtez kantu espezialitateko musika ikaskuntzak gaintu dituzte.

ANTZERKIA

Mortimerren azken bidaia

Lur Zabal eta Kukubiltxo antzerki taldeek elkarrekin sortutako ikuskizun berria, Mortimer ikusteko aukera egongo da ostiralean 23:00etatik aurrera Jalgi kafe-Antzokian

Clown teknikaren bidez pertsonai ilun baina dibertigarria aurkezten duen monologoa da Mortimer. Izan ere, Mortimer azken bidaiarako prestatzen ari da. Dena atzean utzi eta “beste munduan” dagoen bere maitalearengana joan nahi duela argi du. Baina ez da errega, azken momentuan eman beharreko lehen pausu horrek beldurtzen du. Kideak bilatuko ditu ausartago izan eta pausua emateko. Horrek, hainbat ikusle bere egoera pasibotik atera eta istorioaren parte izatera eramango ditu.

Barre egiteko aukera paregabea, ostiralean, Jalgi kafe Antzokian duena. •



Mortimer antzezlanaren ostiralean egongo da Jalgi Kafe Antzokian. Arg.: Barrenetxea

UDALTZAINAK

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera, kamiseta beltz bat, puntuzko jaka, eguzkitako betaurrekoak eta bi erloju.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

ONCEKO SARIA

35.000 euroko saria Lasarte-Orian

Osteguneko, urriaren 21ko ONCEko zozketak 35.000 euroko saria ekarri du Lasarte-Oriara. Eladino Ferreirak, Kale Nagusiko kioskoko arduradunak saldu du boleto saritua.

Gogoratu behar da, duela hilabete gutxi, abuztuaren 28ko zozketan, hain zuzen ere, Ferreirak berak saldutako bost boleto 25.000 euroko saria izan zutela bakoitzak. •



Miren Artetxe Bertsulari Txapelketako finalean.- Miren Artetxe bertsularia Xi-La-Ba, Xiberua, Lapurdi eta Baxenafarroko Bertsulari Txapelketako finalean izango da azaroaren 13an Donibane Lohizunen larunbatean Sustrai Colinaren atzetik Gabadin jokatu zen finalerdian bigarren izan eta gero. Miren Artetxerekin batera, Amets Arzallus, Eneritz Zabaleta, Sustrai Colina, Odei Barroso, Joanes Etxebarria, Ekhi Erremundegi eta Xumai Muruak kantatuko dute finalean. Argazkian, Miren Artetxe Aierrako kanporaketan kantatu zuenean. •

XIX. mendeko Leitzarnera bidai

Burdina Taldearen eskutik Oinatz taldeak Leitzarango bailara ezagutuko du azaroaren 6an

Ikasturtea hasi da Oinatz taldekoentzat ere. Hasiera ederra izango dute, Leitzarango bailaran aurkitzen diren meatze inguruak ezagutuko baitituzte Burdina taldearen eskutik. Ondare historiko, kultural eta monumental berreskuratzeko eta mantentzeko helburuarekin sortu zen Andoaingo talde hau. Lan handia egin dute 2002. urtean jaio zenetik eta eurei esker altxor ugari berriro landaretatik azalerazi dituzte.

Itxaso MORENO

Burdina Taldearen eskutik emango dio ikasturteari hasiera Oinatz taldeak. Lehenengo bidai honetan, oso hurbil eta oso ezezaguna dugun bailara izango dute ikusgai eta aztergai. Leitzarnera joko dute, ondare historiko garrantzitsua duen paraje polit honetara.

Burdina Taldea 2002. urtean sortu zen Leitzarango bailara berreskuratzeko behar bat zegoela ikusirik.

Borondatez lan egiten duten lagun talde bat da, musutruk ondare historiko, kulturala eta monumental berreskuratze eta mantentze-lanetan aritzeko helburuarekin sortua.

Taldean dihardu Jaione Iriondo lasarteoriatarak. 2001eko urritik 2002 martxora arte Leitzarango ondare historikoaren azterketa bat egin zuen Andoaingo udal-txean: "momentu horretan konturatu nintzen Leitzarneren behar bat zegoela ondare historikoa berreskuratzeko" azaldu digu Iriondok.

Leitzarango bailaran aurkitu daitezkeen meatze eremu ezberdinetako eremu fisikoak berreskuratzen hasi ziren. Eta ondoren ekin zioten Andoaingo Karobiak berreskuratzeari. Besteak beste, Leitzarneren, Andoainen, Billabonan, edota Elduainen... lan handia egin ari den taldea da.

Burdina Taldeko kideak boluntarioak dira, eta diru laguntzen bidez finantziazten dituzte lanak. Buruan duten proiektua udaletxe eta diputazioari aurkeztu "eta diru laguntzen bidez jartzen da dena martxan, baina guk ez dugu zentimorik jasotzen" azaldu digu Jaionek.

Berritze edota mantenu lanak euren aisia denboran egiten dute "bakoitzak bere lanbidea du eta horretaz bizi da" gaineratzen du. Arkitektoak, topografoak, igogailu konpontzaileak, irakasleak... lan ezberdinetakoak, baina guztiak helburu berdinarekin "gure bazterrak azaleratzea".

Aurten, Andoainen lehendik garbitutako karobi batzuen mantenu lanak egin dituzte, Billabonan, beste karobi bat garbitu dute eta inguruko lurrak kendu... proiektu ugari ditu taldeak: Lehenengo arabera erabakitzen dute nondik hasi "guk bailara ezagutzen dugu eta ondarea aztertu ondoren, lehenengo araberako eremuak ezartzen ditugu" dio Jaionek.

Lagun talde honen lanari esker, landaretza jaten ari zen monumentu asko azaleratu dira: "ondare asko erortzen ari ziren eta guk, hori gertatu baino lehen, berreskuratu nahi ditugu. Batzuetan diputazio teknikiari ere guregana etortzen dira eremuren batean gure beharra baldin badute, jakinaraztera" gaineratu du.

Giro ona nagusi

Giro edera dago 75-85 pertsonen osotutako taldean "hamaiketako ederrak, bazkariak, festak.. egiten ditugu".

Talde irekia da Burdina eta edozein apuntatu daiteke "ondarea berreskuratzea eta mantentzea gustatu behar zaizu, hala nola borondatezko lanak egitea, eta forma fisi-



Burdina Taldea egun 75-85 pertsonen osatzen dute eta giro ederra dute.

ARG.:TXANKA

koan egotea" esan digu Jaionek. Norbaitek interesarik badu 678 41 02 84 telefono zenbakira deitzea baino ez du, eta taldeko kiden den Txankarengatik galdetu.

Lan garrantzitsua

Bizkotxeko meatze eremuan egin dute lanak garrantzitsua. Hor sortu zen Plazaolako trena, "Lasarte-Oriatik pasako zena" eta hau izango da Oinatz taldearekin bisitatuko duten eremua "Leitzako bihotza, gune garrantzitsua". Gune honetan meategiak daude, minerala erretzeko labea, minerala kargatzeko tokia eta garraiatzeko trena "XIX. mendeko lan egiteko era ezagutuko dugu" dio Jaionek. Historia handiko bailara dugu

Leitzarnera "baina zoritxarrez oso ezezaguna, bertako gauza gutxi ezagutzen dira".

Irteera interesgarria

Ikasturteari hasiera emateko irteera interesgarria proposatzen die Oinatz taldeak lasarteoriatar guztiei "hemen ondoan dago, nik ikerketa lanak egin arte ez nuen ezagutzen, merezi du bailara horrek kontatzeko duen guttia ezagutzea" dio Jaionek.

Aukera paregabea da Burdina Taldekoen lana ezagutzeko. Gainera, taldeko kide batek gidatuko du irteera "parajeak hor daude, baina ez badakizu non, zailak dira aurkitzeko, seinaleak orai ndik jartzeko daude eta". Irteera nahi duenarentzat irekia da. •

Joan nahi duenarentzako

Irteera: 9:00etan Jalgi Taberna aurrean.

9:15ean Zumea Plazan.

Nora: Leitzarango bailarako meatze eremuetara.

Ibilbidearen iraupena: Irteera 9:30ean izango da eta 13:30ean dago aurreikusita iritsiera. Bisita gidatua izango da Burdina Taldearen eskutik.

Bazkaria: Irunberri elkar-txean (Andoainen) nahi dutenentzat. Txartelak Andoainen Txitibar tabernan eta Lasarte-Orian Ttakunen egongo dira salgai azaroaren 4a arte.



Ezkerreko irudian Bizkotxeko labea Burdina Taldeak aurkitu zuen bezala, eta eskubikoak berreskuratze eta mantenu lanen ondoren aurkezten duen irudi berritua.

ARG.:TXANKA

Andaluziako kultura Semblante elkartean

Atzo eman zioten amaiera Semblante Andaluz elkarteko kultur asteari bazkari herrikoiarekin

Bazkari herrikoia eta sari banaketarekin eman zitzaion atzo amaiera Semblante Andaluz elkartean astean zehar egin duten kultur asteri. Haurrentzako emanaldi, Andaluziako kanta eta dantzak, Mikel Etxarriren hitzaldia eta hainbat lehiaketa burutu dira besteak beste Lasarte-Oriako andaluziarrean elkartean.

Jon ALTUNA

Semblante Andaluz elkartean atzo iluntzean banatu ziren astean zehar burutu diren lehiaketetako sariak, eta protagonistatoko bat Antonio Ruben Rodriguez izan da astertean melio Martinekin batera musean lortutako txapelari, osteguneko tortila lehiaketako lehen postua gehitu baitzuten. Lau emakumezko izan zituen aurrean, baina epai mahaioek bere tortila aukeratu zuten.

Tutean, Pedro Grande eta Eliodoro Lorenzo izan ziren txapeladunak. Bestalde, osteguneko jokatu zen pote txapelketan Luis Castellon nagusitu zen, 20 jaurtiketatik bostean sartu zuen txapa potean. Biga-

rren izan zen Emilio Barcenak baino bat gehiago. Emakumeen artean Toñi Centenok lortu zuen lehen saria, berak bakarrik lortu baitzuen txapa potean sartzea.

Osteguneko bertan Mikel Etxarri futbol entrenadoreak eman zuen hitzaldian kirol honek Lasarte-Orian izan duen bilakaerari errepaso eman zion, Bardaji eta Iguaran anaiei garaietatik hasita lehen mailetan izan diren jokalariei, entrenadore eta arbitroen zerrenda eginaz besteak beste.

Oro har giro bikaina izan da, haurrentzako pailazoen, Semblante Rociero abesbatzaren eta Duende Flamenco dantza taldearen emanaldietan eta atzo igandean egin zen bazkari herrikoian. •



Semblante Rociero abesbatzak Andaluziako kantak "etxean" abestu zituen larunbat arratsaldean



Antonio Ruben Rodriguez izan da tortilla txapelketan eta musean txapeladun. Toñi Centeno eta Luis Castellon, poteko irabazleak.



Mikel Etxarri entrenatzailea Lasarte-Oriako futbolaz mintzatu zen ostegunekoan.



Saritu guztiak ez ziren banaketan izan, baina ihurbildu zirenak Antonio Pedraza Semblante Andaluz elkarteko presidentearekin.

www.txintxarri.info

Albisteak, agenda, argazkiak, zorion-agurrak, Txintxarri pdf-n...

BERTAKO FABRIKAZIOA
Solomoa baratxuritan-Baserri pateak
Odolkia- Solomo ontzuta
Etxeko txorizoa
Txistorra

Tripakiak- Saltxitxak
Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Bizitza orekatua, *Chi-kungaren* bidez

■ *Tai-chia Chi-kungetik* datorren teknika da ■ *Chi-kung* saioak eskainiko dira *Dasa* zentroan

Gorputzaren barne energia lantzen duen zientzia da *Chi-Kung*. Txinako medikuntza tradizionalan oinarritua dago eta gorputzaren alde fisikoa, emozionala eta energetikoa orekatuak egotea bilatzen du. Osasunari dagokionez, onura ugari dakarren zientzia da. Cristina Calmaestra eta Montse Pablo irakasleekin egon gara teknika honi buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Ekialde Urruneko hainbat meditazio teknika eta borroka-arte ezagunak dira gure artean. Hurrengo astetik aurrera, gure herrian teknika berri bat ezagutzeko aukera egongo da *Dasa* zentroan, *Chi-kung* a.

*Chi-kung*ak gorputzaren energia zuzentzen ikasten du. Arnasketa, kontzientzia eta mugimendu ariketen bidez osasuna hobetu, gaixotasunak saihestu eta bizitasuna handitu dezake pertsona batek.

Chi-kung ezberdinak

Chi-Kung mota ezberdinak daudela azaldu digute, "bizitza luzatzeko *Chi-kung*a dago. Horretaz gain, borroka *Chi-kung*a dago, Shaolin monjeek egiten dutena eta hemen gehien ikusi dena. Eta *Chi-kung* bat meditazioan dago oinarritu eta monjeek egiten dute"

Dasa zentroan osasunari zuzendua dagoen *Chi-kung*a eskainiko dute, "nahasketa bat da, gaixotasunik ez izatea, bizitza luzatzea eta bizitasuna izatea bilatzen du."

Energi mugitzeko ariketak

"Esate baterako, *Tai-chia Chi-kungetik* dator eta ez da yoga bezain estatikoa. Meridiano energetikoa lantzen ditugu eta horiek gorputzeko organoetatik igarotzen dira," azaldu digute.

"Energia gorputzaren leku batean geratzea edo energia-

rik ez izatea ez da ona. Energia mugimenduan egon behar du, bestela gaixotasunak sortzen dira," gaineratu dute.

Saio bat

Chi-Kung edozein pertsonak eta edozein adinekoak egin dezakeela azpimarratu dute, "zutik egiten da eta ez dago postura arrarorik." Gainera, ez da ezaguerarik izan behar.

Ordu beteko saioak egiten dira eta hiru zatitan daude banatuak.

"Lehenik gorputza esnatu behar da, nagjak kendu behar ditugu eta gorputzaz kontziente izan behar gara. Horretarako, etzanda ariketa batzuk egiten dira," adierazi dute.

Ondoren, zutik egiten diren ariketak daude, dinami-koak dira eta gorputzaren zati ezberdinak lantzen dira musikaren laguntzaz. "Estetikoki *Tai-chi*aren antza du, baina batzuetan tentsioa, garrasiak etab. lantzen dira. Ez da gutxia lasai egotea," aipatu dute.

Baina, batetik ariketa espe- zifikokoak daude, "hautetan organoetako energia lantzen da, baita emozioak ere. Gibe- la, esate baterako, haserreare- kin dago lotua eta gibelaren energia eta haserrera oreka- tzeko ariketak daude."

Eta bestetik, ariketa multzo- ak daude, hala nola, Lohanen 18 eskuak. "Hori ikasteko, urte bete behar duzu," azaldu digute.

Azkenik, lasaitzeko arike- tak daude, etzanda. "Gure



Chi-kung-a zutik egiten da eta mugimendua duten ariketa ezberdinak egiten dira. Argazkian, arkulariaren ariketa egiten.

gorputza lasaitu behar dugu, saioan zehar energiak batetik bestera mugitu ditugu eta.

Onurak

Osasuna eta gorputzarentzat onuragarria dela aipatu digute, "hilabete batzuetan gorputza nola garbitzen den nabari da. Egunero 20 minutu egiten badituzu, epe motzean gorputza hobeto dagoela nabari duzu. Fisikoa gehiago nabari da, gorputzaren egoera fisiologiko eta biokimikoa hobetzen baitu, garrantzizko organoak sendatuz. Beste onurak, energetiko edo emozionalak luzera nabari dira."

Chi-kungen oreka osoa bilatzen da, bere helburua gorputzaren alde fisikoa, emozionala eta energetikoa orekatuak egotea da funtsa.. "*Chi-kung*a egiten duen per- tsona batek ahula eta lasai dirudi baina indarra ere badu. Orekatua dago eta zaila da

esate baterako bultzada eman eta mugitzea," azaltzen dute.

"Lurrera ongi errotua dago *Chi-kung* egiten duen perso- nak. Izan ere, lurra eta unibertsoaren arteko lotura lantzen dugu. Energi horretaz baliatzen gara eta gureganatzen dugu. Gu gara bien arte- ko lotura," aipatu dute.

Dasa zentroa

Gipuzkoan *Chi-kung* egiteko aukera gutxi zegoela eta, Cristina Calmaestra eta Montse Pablok *Dasa* zentroa irekitzea erabaki zuten. "Gu batetik bestera ibili gara gure ikaske- tak burutzeko eta inguruan, Irunen dago egiteko aukera bakarra," adierazi digute.

Zentro irekia eta dinami- koa izatea nahi dutela azpi- marratu dute, "Donostian Zen meditazioa egiten duen nor- bait badago eta Lasarten saio- ren bat eman nahi duela, guk lokala utziko diogu. Jendeak

etorri eta teknika ezberdinak ikustea nahi dugu."

Horregatik, *Chi-kungez* gain, yoga eta energiarekin zerikusia duten teknikak eskai- niko dira eta emozioak lantze- ko terapeuta bat ere egongo dela aipatu dute.

Ate irekiak

Ikastaroekin azaroan hasteko asmoa badute ere, aste hone- tan ate irekiak egingo dituzte euskaltegi zaharraren azpian dagoen *Dasa* zentroan.

Chi-kung saioak egingo dituzte gaur, 19:00etatik 20:00etara eta astearte eta ostegunean 19:30etatik 20:30etara eta asteazkenean, yoga 19:30etatik 21:00etara.

Lokala txikia denez, eskaera bat egiten dute zen- troko arduradunek, ate ireki hauetara hurbildu nahi due- nak 608 847 847 edo 654 028 868 zenbakira deitu dezala. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Ber-gararen argazki erakusketa. Irati *Aprendeñ Euskadiko* kidea da. Jalgin, egun osoan.

Erakusketa

PROSALUS GK Eren erakusketa ikusgai urriaren 29ra bitartean. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Film gogorra bezain hunkigarria

PRECIOUS filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Harlem auzoan, Clacee "Precious" Jones neskato beltzak, ez daki irakurtzen ezta idazten ere; agobiatuta dago etengabe bere amak iraindu egiten duelako; gehiegizko pisua du; haurdun dago, bigarren semearen zain dago eta gainera eskolatik bota dute ikasleen haurdunaldien legedia dela eta.

OSTEGUNEAN, HILAREN 28AN
21:30EAN KULTURETXEAN
SARRERA, 4,20 EURO

Astelehena, 25

Ipuin-kontalaria

IPIUNAREN ORDUA Pello Añor-garen eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera. EUSKARAZ.

Asteazkena, 27

Kontzertua

LIEPAITES neskez osaturiko Lituaniako haur abesbatzaren emanaldia. 42. Tolosako Abesbatzen lehiaketan hartuko dute parte. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Ostirala, 29

Antzerkia

MORTIMER antzezlanaz izango da ikusgai. Klown formatuko lan batekin dator oraingoan Kukubiltxo antzerki taldea. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.

Larunbata, 30

Ekitaldia

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTSEN saioa Kukuka Antzerki eta Dantza eskolaren alde. Zubietako frontoian, 18:00etan, EUSKARAZ.

Oharrak

Sorgin Jaien bilera

Sorgin Jaiak Batzordeak jakin arazten du, bilera hasi dituela. Hurrengo, asteazkenean, urriak 27an 20:00etan izango da, Xirimiri elkartearen.

Odola ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte Lasarte-Oriako Osasun Zentroan gaur, hilaren 25ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Animatu, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Etexeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexeratak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei.

Oztabide elkarteko loteria

Oztabide auzo-elkartek jakin arazten du eguberritako loteria salgai duela. 3 eurotako loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak Txema tabernan eta Coviran supermerkatuan.

62an jaiotakoen afaria

1962. urtean jaiotako lasarterarrentzat afaria antolatuko dugu azaroaren 13rako, Dana-Ona jatetxean. Interesatuak 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, kontu honetan, 3035 0036 17 0361127028. Argibide gehiagorako: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu).

Eskutitzak

San Markos Mankomunitateko lehendakari ordea den Zorione Etxezarragari xehetasun batzuk:

San Marko Mankomunitateko lehendakari ordea den Zorione Etxezarragari xehetasun batzuk: San Marko Mankomunitateko aurreko batzarraren gehiengoak gizartearen bilketa selektiboa bultzatu eta zabaldu nahi izan du, izan ere guk eredu eraginkorra zela uste genuen, atez atekoaren esperientziak erakutsi duen bezala. Gauza litzateke bilketa eredu eraginkorra ezartzea (bilketa selektiboaren frakzio birziklagarriaren kantidadea eta kalitate terminoetan), kostu bat dakar, baina zaborren bilketa masan eginez azken tratamenduan lortzen diren aurrezkiekin konpensatzen da. Termino ekonomikoetan horrela izanik, ez dago zer esanik ingurugiro eta osasun terminoetan.

Birtualtasunez kontzientziatuta eta beraz ezarpenaren egokitasunaz, San Marko Mankomunitatek atez atekoaren alde egindako bultzada eta ahalegina (Zorione eta bere

kideentzat publizitate kanpainetan utzitako milioiak, guretzako informazio eta sensibilizazio direnak) derrigorrezkoa zen eta errentagarritasun handiagoa edukiko zukeen ez balitzaio boikot egin kondaira herrikoiak bihurtzeke dauden gezurren bitartez, eta merezi duen lekua aintzat hartu gabe.

Hobe da erreto edo gaitzeste frakzioen balioespena ematea (egun oraindik birziklatu ez daitezkeen zaborrak sortzen dira, edo birziklatu daitezkeenak eta bilketa selektiboz jasotzen ez direnez ez direnak birziklatzen) zaborra mendira botatzea baino, horretan bat etor gaitzetzeko. Baina agian ez zara konturatu hori ez dela eztabaida gaia, gauza litzateke erreto edo gaitzespenez frakzio horiek ahalik eta gehien murriztea. Ez ahaztu hobesgarria dela balioztapen materiala balioztapen energetikoa baino (gainera, ez du zertan erausketa-erretan bitartez izan behar).

Egun ditugun industria askoren eta atez atekoaren erabiltzen diren erausketa berri eta modernoen igorpen apalagoen inguruan asko dago esateko. Beste industriaren emisioak ekoizpen prozesu estandarizatu bati egin dio men eta bere inputak ezagu-

zten dira, ezin da gauza beratan masan egindako bilketa erretzeko instalazioez, eta beraz konposizio ezezagun eta aldakorra dauka. Errausketen emisioak dioxina eta furano gama ezezaguna eta zabala daukate, baita metal astunak eta mikropartikula mota ugariak; guzti honek ezin gaitu inolaz ere axolagabekeriara eraman. Ez dago kaltegarriko dosirik nahiz eta kontzentrazioak minimoak izan, are eta gehiago minametzeko efektu bat ematen denean setiatutako medioan (airea, lurra, animaliak, landareak eta arriskuan gauden gizarte osatzen dugunok) erausketaren bizi iraupenean zehar.

Manipulazioaz hitz egiten jarriaz, erausketaren alternatiba zabortegia dela baieztapenaren aurrean, jakin dezazula Zorione beti geratuko dela frakzio bat birziklatu ezin daitekeena. Gogoratu nahi dizut ere bai erausketaren erreto frakzioetarako deposituak behar izatek (atez ateko bilketa selektibo egokiaren bitartez gutxienera murriztu dezakegu, eta gainera ia ez luke materia organikorik edukiko, lixiabiadoren, metano emisioen, usainen... kausa dena) erausketa, eskoriak, eta filtroentza-

ko toxiko eta produktu arrisku-suentzako deposituak behar izatera pasatzen garela eta gure atmosfera eta gure organismo propioak emisioen zabortegian bihurtzen. (Orain dela gutxi jakin dugu errausketa beste autonomi erkidegoetan dauden zabortegietara eramatea dutela buruan kontzortziokoek, Gipuzkoatik urrutik)

Bukatzen joateko, San Marko Mankomunitatean emandako aldatuta (Iari) mina eman duela baieztatzen duzunean, jada ez duelako bere eskutian jendearen bizitza baldintzatuko arma politikoa, bizilagunen intimitatean inbaditzaile sistema bat inposatuz, garesti eta eragingabea, guzti hori esanaz kontradikzioetan erortzen ari zara. Ez al ginen ba ados bilketa sistema (atez atekoa, 4 edo 5 zaborrontzi,...) udaleke bakoitzaren kompetentzia direla? Zergatik orduan ez du jada arma hori eskutian?

Eta orain goazen gakora: -Ez da sistema garestia, mahai ganean gastuen eta sarre- ren osotasuna jartzen baditugu, balantzea positiboa lortzen dugu (gastu gehiago bilketan, baina aurrezkiekin tratamenduan eta sarrera handiagoak birziklapenari esker).

-Ez da sistema eragingabea. Argi geratzen da, beno, behintzat ikusi nahi duenarentzat, guztiz kontrakoa dela. Bilketa selektiboaren %20 jasotzetik birziklapen frakzioen %80 biltzera pasatzen gara, edo 0 gramo jasotzetik (lurralde herri gehienetan) 350gr/bizanleko/eguneko jasotzera pasatuz (atez atekoa txertatua duten herrien media), eta honekin soberan frogatzen da atez atekoaren eraginkortasuna eta nagusitasuna.

-Intimitatearen inbasio sistemarenak ere komentario bat merezi du. Kalitatearen kontrol minimoak erabiltzen dituzten bilketa selektiboaren kontra kalifikatzaile hau aplikatzen duzuenak, argi uzten duzue ez duzuela zuen gizartearen helburu bezala birziklapenera iristeko helmuga (trafikoaren funtzionamendu egokia edota aparkamenduen kontua, edota inposaketaren sistema). Birziklapena jendearen borondatearen menpe uztea, modu ausartegian gidatzeko askatasuna edota iruzur fiskala babestea bezalakoa da.

Ricardo Ortega EBko zinegotzia Lasarte-Oriako eta SMMeko lehendakari ohia

ERREDAKZIOAK ITZULIA

Irati Bergara Fisioterapeuta eta antropologa

“Mexiko DF anarkikoa da”

■ Irati Bergarak hasiko du azaroan zehar Jalgin burutuko den diaporama emanaldi egitaraua
 ■ Antropologia ikasketak amaitzeko gradu ondokoa egin du sei hilabetez Mexikoko hiriburuan

Azaroan zehar, urtero bezala, Jalgin munduko hainbat tokitako diaporamak ikusteko aukera izango da. Irati Bergara herritarrak hasiko du sorta, azaroaren 3an Mexiko DFko argazki eta azalpenekin. Fisioterapeuta da lasarteoriatarra, gerora antropologia ikasi du eta Mexikoko hiriburuan egon da aurten gradu ondoko bat eginen. Mexiko hegoaldera, Guatemala eta Kubara joateko ere baliatu du bidaia. Azaroaren 9an Naiké Zumetak Bulgaria ekarriko du Jalgira, azaroaren 17an Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak, Costa Rica eta Nikaraguako Atlantikoko kosta, 24an Oinatz taldeak urteko irteeren irudiak emango ditu eta abenduaren 1ean Igor Unanue eta Mikel Urdanpilletak Georgia erakutsiko dute.

Jon ALTUNA

Bidaiatzea gustuko du Irati Bergarak. Duela hiru urte hiru hilabetez Venezuelan izan zen kooperatzaile, adimen urritasuna duten pertsonekin borondatez lanean eta ordutik dabil Venezuelan adimen urritasuna eta urritasun fisikoa dutenekin lanean diharduen “Aprende Euskadi” Laguntza Elkartean. Hain juxtu, pertsona hauen egoera ezagutarazteko Jalgi kafe-antzokian argazki erakusketa jarri dute urrian zehar.

Eta Jalgin azaroan eskainiko diren munduko toki ezberdinetako argazkien diaporama emanaldiak, Irati Bergara berak hasiko ditu. Urtariletik abuztura bitartean Mexiko DFn izan da, aurten, 26 urteko lasarteoriatarra. Fisioterapia ikasi zuen aurrena, baina gero antropologia eta ikasketak amaitzera joan zen hiriburu honetara eta bertako Unibertsitate Autonomoan, UNAM-en, egin zuen antropologian gradu ondokoa, antropologia fakultatean.

Beraz ikastera joan eta baliatu zenuen bidaia, Mexiko apur bat ezagutzeko?

Diaporametan normalean bidaiak, mendiak, paisajeak eta horrelakoak erakusten dira eta nik, hori ere ikusi dut, baina pentsatu dut hango bizitza hobeto azaltzeko, hiria aukeratzeko, hobeto ezagutzen dut eta. Oaxaka, Chiapas edota Guatemala erakutsi ditzaket, baina Mexiko DF Hiria erakutsiko dut askorako ematen du eta.

Zer dauka hiriak, ba?

Kontraste pila bat. Kontuan izanda Mexikon 31 estatu daukela, gehi Mexiko DF, eta denek konstituzioa errespetatu

behar badute ere, independenteak direla, estatu bakoitzean gauza ezberdinak aurkitu ditzakezu, baina DFn guztien nahastea, migrazioa jasotzen duen gune garrantzitsua delako. Anarkikoa da eta hori asko interesatzen zait.

Batez ere nabarmenduko ditut kalean jateko dagoen kultura, erlijioa, edozein bazterretan daude ama birjinak,...

Argazki asko ateratzen al dituzu? Dezentea.

Beraz, hiriko bizitza kontatuko duzu?

Egon dira langileen grebak ere. *Luz y Fuerza* argi indar enpresa handia pribatizatu egin zuen iaz Calderon presidentek eta langileak greban egon dira hiri ezberdinetan. DFn, ikuskizun handiak muntatu zituzten. Ezezaguna zen borroka izan du hiriak, Estatu guztietatik ezkeriarrena eta aurrerakoiena izan dela esan dute. Eta Unibertsitatekoa ere kontatuko dut. Hau da gehiena bizi izan dudana.

Bidaia kontatzea erabakiko banu, Chiapas-era egindakoa azalduko nuke. Indigenen komunitate batean egon ginen goiz batean, baina gehienbat San Cristobal De Las Casas-en, gero Palenquera joan nintzen Maien kultura ezagutzeko eta handik Guatemala eta Kubara.

Zer moduzko herrialdea iruditu zaizu Mexiko?

Zaila da horrelako herrialde handia definitzeko. Alde batek, iruditzen zait Estatu Batzuen merkatua dela. Hango jendeak esaten du, Merkatu Libreko akordioa sinatu zutenetik gauzak okerrera joan direla eta hirien behintzat anarkia gehiago nabaritzen dela.



Mexikoko hiriburuan aterako argazkiak erakutsiko ditu Irati Bergarak azaroaren 3an gaueko 21:30ean Jalgi kafe-antzokian.

Denetik daukazu, desertua, mendi eta kosta zoragarriak, hondartzak, eta hiri erraldoiak. Pasada bat da. Mexikarrei dagokionez, nire klase kideekin oso ondo eraman naiz, baina badira azkarrak, biziak eta apur bat zeriak ere. Lehen tratuetan beraz kontuz ibili behar da, baina konfidantza lortutakoan ondo.

Segurua al da Mexiko?

Nik ez dut inolako arazorik izan, baina klasean galdetu eta gutxi gorabehera seitek lauri noizbait lapurtu zitoen. Niri ez zait ezertxo ere pasa. Argazkigintza proiektu bat egin nuen, “*Fotografía Social*” eta galdetzen zidaten kamerarekin ibili eta nolatan ez zitzaidan ezer gertatu. Lau hilabetean ibili nintzen argazkiak ateratzen eta esaten zuten “hori da denbora gutxi daramakizulako”.

Zenbat biztanle ditu DFk?

Hiriburuan zortzi milioi bizi dira, baina Mexiko eta Morelos estatuetatik gehienak bertara doaz lanera, eta beraz, 25 milioi dira guztira. Asteburutan “hutsa” gelditzen da,

zortzi milioi bakarrik. 25etik 8ra jaisten da.

Kaotiko xamarra izango da?

Oso. Soldatak baxuak dira eta kalean janaria salduta lan normal batean baino askoz gehiago irabazten dutenez, orduan janari postu pila daude, edozein izkinatan, metrotik atera eta zentro komertzial bat ematen du. Nik anarkiko gisa definituko nuke. Baina badauka bere xarma. Kontraste handiak dira. Garibaldi plazan mariatxiak dituzu eta beste plaza batean elektro musikarik modernoena, Londresen zaudela dirudi, ... ikusgarria da.

Nolako esperientzia izan da? Askatu gustatu zait.

Ikasketak arazorik gabe bukatu al dituzu?
 Bai, maila onarekin.

Antropologia ikastera eta hain juxtu Mexikora, egokia, ezta?

Egia esan, bai. Gehiago ikasi dut gaur egungo indigenengandik. Lehengo Maia eta Azteka zibilizazioez baino. Oraingo indigenen egoera askoz gehiago.

Euskaldunak topatu al dituzu?

Ez, hemendik joan ginenak. Eta neska mexikar bat aurkitu nuen euskaraz ikasten ari zena.

Askatu gustatzen zaizu bidaia-tzea, ezta?

Izugarri.

Leku askotan egon al zara?

Amerikan esan bezala, Venezuelara, Mexikora, Guatemala eta Kuban egon naiz, bestalde, India ezagutzeko aukera ere izan dut eta Europako leku ezberdinak ere bai.

Mexikoko unibertsitatean klaseak ekainean amaitu eta bi hilabete eta erdian ibili naiz *porrai*, Mexiko, Guatemala eta Kubako hainbat tokitan: Mexiko DF hiriburuan, Oaxakan, Chiapasen, Guatemalan, eta berriz Mexikon, Yukatan-eko kostan. Eta Kuban, Habana hiriburuan 8-10 egunez, Santiagon, Trinidaden eta Santa Claran, ... tipikoak.

Eta guztien artean Mexiko hiriburua aukeratu duzu?

Bai, Guatemala aukeratu banu, gainetik azalduko nuke, paisaia zoragarria dela, esploratu gabe dagoen toki harrigarri bat eta jendea ere zoragarria dela, baina askoz gehiago ezingo nuke esan. 12 egunetan soilik izan nintzen Guatemalan. Mexiko hobeto ezagutu nuen. •

Hiriburuan zortzi milioi bizi dira, baina Mexiko eta Morelos-etik hara doaz lanera, eta beraz, astean zehar 25 milioi dira